

<p>Ikasgaiaren izena Kodea. Proiektua: Formatu eta eduki berriak sortzea</p>	<p>ECTS kredituak 6 ECTS Derrigorrezkoa</p>
<p>Ikasketa planean duen kokapena eta iraupena LAUGARREN MAILA – SEI HILEKOA</p>	<p>Modalitatea Presentziala</p>
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen kompetentziak</p> <p>- Oinarrizko kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Unean uneko gizarte aldaketa nagusiak definitzea eta komunikazio testu eta eredu berrietara egokitzea</p> <p>(Kodea)- Barneratutako ezagutza eta trebetasun teknikoak komunikaziozko testuinguru berrietara aplikatzea</p> <p>(Kodea)- Lan arloko irtenbideak eta aukerak ezagutzea eta aztertzea, ikaskuntza berriak aintzat hartuta</p> <p>- Zeharkako kompetentziak</p> <p>(Kodea)- Ekintzaitetza eta berrikuntza</p> <p>(Kodea)- Talde lana</p> <p>(Kodea)- Ikasten ikastea</p> <p>(Kodea)- Espiritu kritikoa eta konpromiso etikoa</p> <p>- Kompetentzia espezifikoak:</p> <p>(Kodea)- Giza baliabideak, aurrekontu baliabideak eta baliabide teknikoak planifikatzea, koordinatzea eta kudeatzea, ikus-entzunezko formatu eta eduki berrien ekoizpen faseetan eta hedapen faseetan</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko lan baten sustapena eta hedapena prestatzea, formatu eta eduki berrietara egokituta</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko formatu eta eduki berrien eszenaratze osoa sortzea eta zuzentzea, aurreikusitako lan egitasmoarekin eta aurrekontuarekin bat etorrita, ikus-entzunezko produktuak lantzeko eta osatzeko teknika narratibo eta teknologiko egokiak erabiliz</p> <p>(Kodea)- Ideia eta eduki berriak sortzea eta formatu berrietara eta ikus-entzunezko arloaren egoera berrira egokitzea</p> <p>(Kodea)- Ikus-entzunezko testuak eta kontakizunak interpretatzea, gaur egungo gizarte aldaketak abiapuntutzat hartuta</p>	
<p>Ikasleak ikasgai honekin bereganatuko dituen ikaskuntza emaitzak</p> <p>Gizarte aldaketa garrantzitsuenak ikus-entzunezko joera nagusiekin erlazionatzea</p> <p>Gaur egungo gizartea aztertuz barneratutako ezagutzak formatu eta eduki berriak sortzeko erabiltzea</p> <p>Formatu eta eduki berriak prestatzea eta antolatzea simulatutako lan egoeretarako, baldintza teknikoak eta denborazko baldintzak aintzat hartuta</p> <p>Lan arloko aukerak ezagutzea, baita mundu horretara egokitzeko moduak ere</p> <p>Irtenbide profesionalak aztertzea, ikaskuntza berriak kontuan hartuta</p>	

Produktzio faseetan beharrezkoak diren giza baliabideak koordinatzea, ikus-entzunezko formatu eta eduki berriak egiteko

Ikus-entzunezko formatu berrien produktzioa planifikatzea, beharrezko baliabide teknikoak aintzat hartuta

Formatu eta eduki berriak planifikatzea eta kudeatzea, aurreikusitako aurrekontua beteta
Ikus-entzunezko formatu eta eduki berrien hedapena planifikatzea eta koordinatzea

Gidoi bat identifikatzea eta formatu berrien produktzio osora egokitzea, ikus-entzunezko arloaren gaur egungo egoera aintzat hartuta

Ikus-entzunezko formatu eta eduki berriak sortzea eta zuzentzea, eszenaratzeari erreparatuz (argiztapena, dekoratua, aktore zuzendaritza)

Ikus-entzunezko formatu eta eduki berriak sortzea eta zuzentzea, beharrezko irizpide narratibo eta teknikoetara egokituta (espazioa, denbora, erritmoa, soinua eta diegesia)

Ikus-entzunezko formatu eta eduki berrien ezaugarri narratiboak ezagutzea

Testu idatziak sortzea eta egokitzea, ikus-entzunezko komunikazioaren gaur egungo eskakizunak aintzat hartuta

Testu eta ideia berriak interpretatzea, ikus-entzunezkoen eta komunikazioaren gaur egungo testuingurua kontuan hartuta

Testu eta ideia berriak interpretatzea, aldaketa eta paradigma historiko eta sozial berriekin erlazionatuta

Ikasgaiak profil profesionalari egiten dion ekarpena

Kontuan hartuta ikasgai hau formatu eta eduki berriak sortzeko proiektu bat prestatzean datzala, ikasleek profil hauetarako beharrezko gaitasunak landuko dituzte: Ikus-entzunezko komunikatzailea, Produktorea, Diseinatzaile grafikoa, Gidoigilea eta Telebistako zuzendaria eta errealizadorea.

Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta ikasleak bereganatu beharreko kompetentziekin duen harremana

MT1. Eskola magistralak
MT2. Kasuak aztertzea
MT3. Problema ebaztea
MT4. Proiektuak

Prestakuntza jarduerak

Jarduera presentzialak

JP1. Taldean bideratutako ikasketa eta lana, honako hauetan oinarrituta: kasuak, problema edo proiektuak, lan kooperatiboa...

JP2. Eskola magistralak/Hitzaldiak

JP3. Eskola praktikoak

JP5. Tailerrak

JP6. Jarraipenerako tutoretzak

JP7. Mintegiak

JP9. Aurkezpenak

JP10. Simulazioak/Rol jokoak

Ez-presentzialak

JEP2. Taldekako ikasketa eta lana

Ikasleak bereganatutako kompetentziak ebaluatzeko sistema

EB1. Talde lanak

EB3. Azalpenak eta aurkezpenak

EB5. Prestakuntza jardueretara joatea eta horietan modu aktiboan parte hartzea

Edukien laburpena

- Ikus-entzunezko eduki eta formatuen egoera eguneratua
- Multimedia, transmedia eta cross-media edukiak. Definizioa eta desberdintasunak
- Transmedia edukiak. Ahalmena eta arriskuak
- Transmedia edukiak marketingeko kanpaina gisa
- Eduki berrien hedapena
- Hartzaile pasiboetatik ikus-entzule aktiboetara. Ikus-entzule aktiboen partaidetzaren garrantzia eta komunitate baten sorrera